



160

# EUSKARAZKO PODCASTEN EGOERA



**Naia Aizpurua Garro, Uxue Morales Elorza,  
Natalia Arteché Cerrato, Eneko Bidegain**

*Mondragon Unibertsitatea*

Azken urteetan arrakasta handia lortu du podcasten munduak, eta euskarara ere iritsi da joera hori. Dozenaka saio sortu dira ezker-eskuin. Euskarazko podcasten azterketa xehe bat egitea da ikerketa honen helburua. Saio guztiak zerrendatzeko ahalegina egin da hemen, eta sailkapen batzuk ere proposatu dira; besteak beste, motaren arabera, esatariaren generoaren arabera, eta hedatzailearen arabera. Emakumeek podcastetan duten presentzia ere ikertu da.

## 1. MARKO TEORIKOA

Oraindik nahiko berritzat jo badaiteke ere, badira jadanik zenbait urte podcasten loraldia gertatu dela. Podcastak aro berri bat ekarri du (Coello, 2022), bai eduki aldetik eta bai kontsumo aldetik, orain arte egon ez den askatasun bat, teknologiarekiko beldurra galtzearekin ere lotuta dagoena (Hernandez, Martin, 2019). Podcasten mundua oso anitza da eta, batez ere, berritzailea. Sortzaileei eduki berriak sortzeko aukera ematen die eta kontsumitzaileei, berriz, bakoitzak nahi duen programazioa sortzekoa.

Horrez gain, irrati orokorretan, emakumezko esatarien presentzia oraindik oso txikia bada ere (Gambín, 2021), podcastak hazten diren heinean emakume sortzaileen kopurua ere areagotzen ari da. Coellok (2022) dioenez, emakume kazetari, umorista eta ekoizleek mikroa hartu dute, irradian beren txokoa lortzen ez zuten istorioak kontatzeko. Milioika deskargak babesten dituzte.

Solék (2020) dio emakumeak direla une honetako podcast eta podcast plataforma interesgarrietako batzuen buru. Haatik, oraindik bidea dago egiteko Sanchezen (2021) arabera, 2018an oraindik podcasten %20 baizik ez baitziren emakumeek egindakoak. Gizonezkoak nagusi diren podcast horiek komunikabide handiek sustatutakoak dira. Cadenasek (2020) uste du emakumeak tokia har-

tzen ari direla podcastetan, baina ez hain saio ezagunetan. Dena den, emakumeen presentzia komunikazioaren beste eremu batzuetan baino handiagoa dela dio. Sortzaile horietako asko *millenials*-ak dira, eta umorearen eta gaurkotasunaren ikuspegi feminista partekatzen dute, baita komunikabide tradizionaletatik oso urrun dagoen komunikazioaren ikuspuntu orokorra ere. Podcastaren boomaren ondorioz, emakume gazteek entzule eta sortzaile gisa aurkitu dute lekua (Coello, 2022).

Podcastak –bai informatiboak, bai espezifikoak– joan-etorrietarako edota etxean kontsumitzeko pentsatuta ekoizten dira. Batzuk zein besteak, gorantza doaz, eta batez besteko entzuleak gutxienez hilean podcast bat kontsumitzen du. Normalean entzule gazteagoak izaten dira (Mimenza, 2020).

Gero eta gehiago dira interneten nabigatuz aurki daitezkeen euskarazko podcastak ere. Denboraren poderioz, hedabide zein plataforma desberdinek “Podcast” izeneko atalak sortu dituzte edukia beste formatu batean igo edo zabaltzeko. Hori horrela izanik, podcast hauek guztiak aurkitzeko zailtasuna areagotzen da, sarean sakabanatuta baitaude. Horregatik, badaude euskarazko podcast guztiak biltzen dituzten webgune batzuk; horrela, hauetara jotzearekin nahikoa da podcast hauekin guztiekin topo egiteko.

Bi dira horien adibide garbiak: *podcastak.eus* eta *podcast.eus*. Azken hau ZuZeu plataformatik eratorria da, eta nagusiki webgune honen podcastak kudeatzeko erabiltzen da. Horrez gain, EITB Podkast plataforma ere hor dago, EITBko podcast guztiak biltzen dituena.

Etxebestek (2021) dioenez, plataforma honetan gazteentzako eta helduentzako edukia eskaintzeaz gain, haurrak harrapatzeko edukiak ere aurkitu ditzakegu bertan. Gainera, podcastez gain, alde batetik, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria, Gaztea, EITB Irratia eta EITB Euskal Kantak irratietatik eratorritako zatiak ditu, eta bestalde, sorkuntza propioko edukiak aurki daitezke webgunean.

## 2. METODOLOGIA

Lan hau egiteko, euskaraz dauden podcast guztiak zerrendatu eta hainbat ezaugarri jaso dira: Podcastaren izena; emititzen duen hedabidea; atal kopurua; iraupena; zein publikori zuzendua dagoen; esatarien izenak eta generoa; eta gaiak zeintzuk diren. Kasu askotan podcastak entzun eta hauek jasotzen dituzten plataformetako informazioa irakurtzea edo entzutea nahikoa izan bada ere, batzuetan beharrezkoa izan da plataformetako arduradunekin kontaktuan jartzea podcast batzuetako esatarien identitatea ezagutzeko.

Podcast guztiak bildu ondoren, sailkapen zehatzagoak egin dira, esatarien generoaren, gaien eta entzuteko plataforma digitalen arabera.





162

## 2.1. Euskarazko podcasten zerrenda

Hasteko, euskaraz egiten diren podcastak zerrendatu dira, podcasta sortzen edo zabaltzen duten hedabideen arabera (behaketa 2022ko martxoaren 29an eguneratu zen azkenekoz).

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
<b>Argia-k zabaldutakoak</b>		
Argia podcastak	85	Eneritz Arzallus
Beranduegi	15	Jon Torner, Aimar Uribesalgo eta Axier Lopez
Oasiko kronika	17	Argiako langileak
Puska dezagun izotza	9	
Txina zaharreko ipuinak	7	
<b>Berria-k zabaldutakoak</b>		
Berria FM	37	Maider Galardi
Dunbala	43	Jagoba Salvador eta Eneritz Furiyak
New Yorkeko munduak	20	Kirmen Uribe
Zaitun	20	Ane Irazabal
Bertso Jarriak	11	Peru Abarrategi
25. fotograma	10	Ane Eslava eta Urtzi Urkizu
<b>EITB Podkast-ek zabaldutakoak</b>		
Historia eta istorioak	21	Juanjo San Miguel
Zientzia & Pazientzia	29	Eneko Axpe eta Uxune Martinez
Zientzia gosaria	30	Idoia Mujika eta Amaia Arregi
Ingurusfera	14	Guillermo Roa
Berriztagarriak berrizten	8	Aitor Urresti
Astetelehen poetikoa	28	Josu Goikoetxea
Memoria eraikiz	5	Jesus Artetxe
Digiatala	17	Maite Goñi eta Joxe Rojas
Zer ikusi	15	Gaizka Izagirre, Ibai Zabala eta Marga Berra
Patrikako solfeoa	1	Ainara Ortega
Barrutik	6	Lander Eizagirre
Filosofia merkea	1	Markos Zapiain
Perlak	17	Tere Beloki, Iñaki Guridi, Arantxa Iturbe, Nekane Peñagarikano...

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Doana jasoz	10	Pello Zabaleta
Hitza Jolas	42	Eneritz Gorrotxategi
Osasun pilulak	1	Felix Zubia
Hil arte bizi	8	Espe Laka, Felix Zubia, Iñigo Suberbiola eta Nere Erkiaga
On Ekin	1	Andrea Larrea
Urratsa	14	Naomi Mendizabal
Tailerrean	1	
Autohizketak	27	Saioa Royo
Jakobaren uzta	1	Jakoba Errekondo
Bazen sukaldean	2	Julen Baz
Natura	1	Arantxa Arza
Ibili munduan	1	Xabier Aldekoa
Yoko ona	14	Olatz Salvador, Lore Nekane Billelabeitia eta Ainhoa Vitoria
Autore podkasta	4	Joseba Sacristan
2 kontu eta 4 kantu	2	Joseina Etxeberria
Klasikoak	25	Irantzu Karrera
Kantu bat gara	3	Jon Maya
Orbitan	7	Ainhoa Vitoria
Ertzetatik	12	Mikel Izarra
Bidegurutzean	34	Musikariak
Pasaia	20	Irantzu Karrera
Zaldi Urdina	10	Ximun Fusch
Artxipelagoa	8	Oier Aranzabal eta Juan G. Andrés (zuzendariak)
Ezbaian	9	Iker Lauroba, Antton Telleria, Eneritz Sanchez eta Iñaki Cid
Ipuin txiki, soinu handi	24	
Dantzerti	3	Dantzertiko ikasleak
Xanti	54	Iñaki Beraetxe eta Arantxa Iturbe
Bertso Larria	5	Galder Perez
With a little help from my friends	5	Xabier Lopez eta Carmen San Esteban
Jon eta Jone	114	Koldo Almandoz (zuzendaria)

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Bihotz Handiegia	6	Eider Rodriguez
Jenisjoplin	1	Uxue Alberdi
Larrua hotz	1	Iñaki Beraetxe
Lo potolo	28	(Asko)
Iritsi gara (goazen)	1	Lorea Intxausti (aktorea)
Eiderrren egunerokoa (goazen)	1	Esti Lopez (aktorea)
Maddiren amona influencera (goazen)	1	Danae Riaño (aktorea)
Asteburu bat eskiatzen (goazen)	1	Asier Burgete (aktorea)
Zoaz infernura, laztana	1	Ainhoa Aierbe
Lokatza	8	Amagoia Gurrutxaga, Idurre Eskisabel, Ainara Lasa eta Lorea Agirre
Barruan Gaude	51	Oier Aranzabal
Solasean	3	Maite Artola
Sabel Travel	9	Gorka Otaegi
Zulora	6	Ane Zuazubiskar eta Julen Portillo
Lore Hostoak	46	Ekain Perez
Kopenhage	5	Ainhoa Vitoria eta Xabin Fernandez
Ipar Orratza	3	Iholdi Beristain eta Mikel Agillon
Lay-Day	3	Olaia Elorriaga eta Ander Lopez
Urteko momenturik onenak	11	Asko
Lehen urratsak	21	Asko
Gurpilean	23	Arritxu Iribar
Irabazi arte	6	Sua Enparantza eta Nahia Sillero
Gogoan	7	
Elkarrizketak	11	
Ezkontzaren katramila	5	Susana Soleto, Jose Cruz Gurrutxaga, Josune Velez de Mendizabal, Alicia Albarrán, Ane Arrugaeta
ZuZeu-k zabaldutakoak		
Euskal gaizkileak seriea	10	Beñat Hach Embarek
Urpeko Bonbarda	64	Anartz Bilbao
Kaixo maitia, zer duzu?	12	Iñigo Arandia eta Olatz Berastegi
Paperezko itsasoa	14	

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Polaina podcasta	20	Mikel Irazusta, Maialen Sorzabalbere eta Amaia Rojo
Uda erotikokoak	6	Ainhoa Aierbe eta Iñaki Beraetxe
Bizitzaren kaos ezkutua	1	Ainhoa Oliden
Adingabeko futbolarien nazioarteko transferentzien debekua	1	Natasha Vergara
Plataforma digitalen izaera juridikoa	1	Enea Izpizua eta Ainhoa Fernandez
Musika eta soinuaren boterea	1	Leyre Eguskiza eta Inazio Gaztaka
Tronu Jokua	1	Leyre Eguskiza eta Inazio Gaztaka
Putzutik plazara	46	Asko
10 minututan	60	Maite Goñi
Zuzeuko Bipareta	34	Arrate Hernandez, Maialen Sorzabalbere eta Amaia Rojo
Hala Bedik zabaldutakoak		
Kafe Espresso	11	
Erro ta berri	373	
Klask!	40	
Joan zikutara	31	
A Desalambrar	70	
Zuria Beltzez	376	
Bertxoko	236	
Ulu Mediak zabaldutakoak		
Ahots Planeta	3	Garazi Albizua eta Idoia Carramiñana
Tabakalera Hotsak	21	Cristina Tapia Huici
Ispilu Beltza	208	Oier Aranzabal eta Cristina Tapia Huici
Katedralak	2	Oier Aranzabal
Bilbo Hiria Irratiak zabaldutakoak		
Gaur ez dago eskolarik	125	
11 Ispilu	50	Rafa Rueda
Kirol Eskirol	27	Jon Joseba Renteria, Jone Fernandez, Liher Barrantes eta Erlantz Iburgurengoitia
Piperpolis	443	Ane Zabala
Berbaz	105	Eleder Aurtenetxe
Soinugela	303	Pedro Elias Igartua
Potto	224	Jabier Lauzurika eta Erlantz Iburgurengoitia



163

Podcastgintzara zuzendurik antena  
**Euskal hedabideen urtekaria 2022-23**



164

Euskal hedabideen urtekaria 2022-23  
Podcastgintzara zuzendurik antena

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Sarean zehar	334	Borja Arbosa eta Iñigo Sendino
<b>Gure Irratiak zabaldukoak</b>		
Adi	193	
<b>Naiz Irratiak zabaldukoak</b>		
Beste bat	204	
Burdinola	140	Inaxio Esnaola
Global Musik	69	Antonio Iriarte
Kera Deia	150	Etxahun Arregi
Ithaka	16	Igone Mariezkurrena
Etzerako kunda	14	Patxi Uranga
Gelditu makinak	150	
Emen Gonak	23	Birkite Alonso
Reggae Fever	127	Eneko Alkorta
Revolutionary Grooves	148	Daddy Jeff
Sateliteak	142	Telmo Trenor
Bilynch	34	
Etxeko Uzta	31	Ramon Zabalegi
Game Erauntsia	15	Lander Unzueta
<b>Antxeta Irratiak zabaldukoak</b>		
Mestibull	60	Jon Gotzon Gurrutxaga
<b>Radixu Irratiak zabaldukoak</b>		
Bon Vivant	186	
Kritikal Blues	400	
Terranobako salau	101	Jesus Mari Arkotxa
Boga ta zixe	34	
<b>Txapa Irratiak zabaldukoak</b>		
Haus of beats	298	
Jar itzazu tapoiak mesedez	164	
Kartzela zaharreko hotsak	74	
Kroma	8	
Norabide barik	59	
Gurasoak	7	
Kolax	287	
Nola aldatzen diren gauzak	225	
Sasi guztien azpitik	33	
Txibierroak uluka	69	
Xarma Tiro Punk	55	Idoia Sanchez
Ziegarik gabeko herensugea	47	

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
<b>Txatxilpurdik zabaldukoak</b>		
Txatxi podkasta	16	
<b>Eguzki Irratiak zabaldukoak</b>		
Kolpez Kolpe	123	
Herriekide	40	
<b>Eup Irratiak zabaldukoak</b>		
Mechanical Heart	50	
Anbelivalu	21	
Ratzenoff	118	
<b>Kkinzonak zabaldukoak</b>		
Botere guztia biribilguneei	15	Ingrid, Baintha Brakk, Maialen, Koxmox eta Tasio
Pentsatu, ez sinistu	10	
Gaur egur	200	
<b>Arralo Irratiak zabaldukoak</b>		
Ahuntzaren gauerdiko eztula	117	
Zarata Zarautz	242	
<b>97 Irratiak zabaldukoak</b>		
Lur eta Murmur	90	
<b>Biztu Irratiak zabaldukoak</b>		
Metal fabrika	27	Lea Leath
Sare on	27	Inaxio Oiarzabal
<b>Zintzilik Irratiak zabaldukoak</b>		
Topa in Topo	54	
Likor Kafe	67	
<b>Kiak Gazteon Ahotsak zabaldukoak</b>		
Kabala	32	Maddi Quintana
<b>Kontrako Eztarriak zabaldukoak</b>		
Hankak lurrin	189	Xabier Arenaza
<b>Xorroxin Irratiak zabaldukoak</b>		
Bertsoinka	155	
<b>Ataun Irratiak zabaldukoak</b>		
Ostiraltxo	80	Gorka Santesteban
<b>Besteak</b>		
Erria	12	Andoni Olariaga
Baraua hautsiz	9	Maddi Etxeberria eta Imanol Santoyo
Baskonia Zainetan	17	Jokin Etxeberria eta Oier Bravo
Erreleboka	20	Oier Bravo eta Eñaut Agirrebengoa
Euskara satorra	20	Beñat Erezuma
Garagortea	10	Haritz Larrageta eta Yasmine Khris Maansri

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Gobara	2	Ane Iruretagoiena
Gona Gorri	8	Miriam Luki eta Lore Agirrezabal
Hilekoa	13	Beñat Uribe-Etxeberria eta Ainhoa Vitoria
Harresi gorria	78	Iosu Ganuza eta Xabi Belzunegi
Laborategian	1	Dabid Martinez
Makarrizketak	8	Bertsolariak
Tropela Podcast	539	Eneko Garate eta Egoitz Lizaso
Xabildua	21	Xabi Unanue
Xerezaderen Artxiboa	113	Saioa Gabikagogeaskoa, Jasone Larrinaga eta Ana Morales
Zarramarra	7	

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	ESATARIAK
Lanaren ekonomia	42	Endika Alabort, Jon Bernat Zubiri, Maitane Jaio, Eki Etxebarria eta Amaia Lekunberri
Gure garaian	1	
Matxura buruan eta ibili munduan	159	
Hodeia ez da existitzen	9	
Kirolari gaittun	11	Maddi Garmendia eta Ane Urkiri
Marruma kulturalak	103	
Podcastak.eus	14	Egoitz Lizaso
Sustatu.eus	20	Luistxo Fernandez
Basilika	22	Beñat Sarasola eta Gorka Bereziartua
Zebrabidea	4.284	




165

Podcastgintzara zuzendurik antena  
**Euskal hedabideen urtekaria 2022-23**

## 2.2. Hedabide bakoitzeko podcast kopurua

### 1. Irudia: Podcast hedatzaile bakoitzaren podcast kopurua



Iturria: Lanketa propioa

Guztira 190 podcast zerrendatu dira. Grafiko honetan ikus daitekeenez, desberdintasun handia dago hedabideen artean. Gehien jasotzen dituenak datuak datu, EITB podcast hedabidea da (68), ondoren datoz ZuZeu eta Naiz Irratia (14 bakoitzak) eta tokian tokiko zenbait irrati, hala nola Txapa Irratia (12), Bilbo Hiria Irratia (8) eta Hala Bedi Irratia (7). 26 podcast daude hedabideren baten parte ez direnak. Badira podcast bakarra edo bi bakarrik zabaltzen duten hedabideak ere: orotara 16 dira gisa hartan zabaltzen diren podcastak.




166

## 2.3. Genero desberdintasuna

Podcast horietako esatarien generoa zein den ere aztertu da: zehaztu da esataria gizona, emakumea edota gizona eta emakumea dituzten.

### 2. Irudia: Podcastak esatarien generoaren arabera



Iturria: Lanketa propioa

Gizonezkoak esatari diren podcastak ia euskarazko podcasten erdia dira, % 49 konkretuki (95 podcast). Emakumeek gidatutakoak berriz, % 25,3 dira (50 podcast), bi generoen artean dagoen kontrastea ikusi dezakegu datu hauetan. Bi generoek gidatutakoak (podcast mistoak), berriz, % 25,3 dira (49 podcast). Bestela adierazteko, emakumezko esatariak badira podcasten % 50,6tan, baina gizonezko esatariak saioen % 74,3tan daude. Hots, lau podcastetik hirutan entzuten dira gizonak, eta podcasten erdia dira bakarrik emakume ahotsa dutenak.

## 2.4. Elkarrizketa podcastak

Podcast asko elkarrizketa podcastak izaten dira. Euskaraz ere asko dira halakoak. Hurrengo taulan zerrendatu ditugu elkarrizketetara bideratutako podcastak; zenbat kapitulu dituzten, zenbateko iraupena duten eta zein publikorentzat osatuta dauden zehaztu dugu (2022ko martxoaren 29ko neurketa).

Neurketa honen arabera, euskaraz egiten diren podcasten % 22,6 dira elkarrizketei eskainiak; laurdena baino pixka bat gutxiago. 60 minutu baino denbora gutxiago irauten dutenak dira nagusi, hala nola 26 podcast. 60 minutu baino gehiagoko podcastak ere ez dira gutxi, ordea, 17 baitira. 60 eta 30 minutu bitarteko iraupena dutenak 14 dira, eta 12 dira 30 minutu baino gutxiagokoak.

Bestalde, egindako saio kopuruari dagokionez, nahiko desberdintasun handia dago elkarrizketa podcasten artean. Elkarrizketa podcast gehienek 10-50 atal



167

Podcastgintzara zuzendurik antena  
**Euskal hedabideen urtekaria 2022-23**

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	BATEZ BESTEKO IRAUPENA	PUBLIKOA
<b>EiTB podcast</b>			
Lokatza	8	30 - 75 min.	Helduak
Barruan gaude	51	30 - 80 min.	Guztia
Solasean	3	20 - 40 min.	Guztia
Sabel Travel	9	13 min.	Guztia
Zulora	6	30 min.	Gazteak
Kopenhage	5	10 - 40 min.	Guztia
Ipar Orratza	3	22 min.	Guztia
Lay Day	3	30 - 40 min.	Guztia
Urteko momenturik onenak	11	8 - 25 min.	Guztia
Lehen urratsak	21	23 min.	Guztia
Gurpilean	23	20 min.	Guztia
Irabazi arte	6	17 min.	Gazteak
Gogoan	7	20 min.	Guztia
<b>ZuZeu</b>			
Bipareta	34	20 - 30 min.	Guztia
<b>Independenteak</b>			
Hodeia ez da existitzen	9	15 - 50 min.	Guztiak
Kirolari gaittun	11	60 min.	Guztia
Marruma kulturalak	103	60 min.	Guztia
Podcastak.eus	14	30 min.	Guztia
Sustatu.eus	20	15 min.	Guztia
Basilika	22	60 min.	Guztia
<b>Naiz Irratia</b>			
Ithaka	16	30 min.	Guztia
Etzerako kunda	14	60 min.	Guztia
Gelditu makinak	150	60 min.	Guztia
Emen Gonak	23	60 - 90 min.	Guztia
Ettxeko Uzta	31	60 min.	Guztia

IZENA	ATAL KOPURUA (2022/03/29)	BATEZ BESTEKO IRAUPENA	PUBLIKOA
<b>Bilbo Hiria</b>			
Kirol Eskirol	27	60 min.	Guztia
Piperpolis	443	50 min.	Guztia
Berbaz	105	60 min.	Guztia
<b>Txapa irratia</b>			
Gurasoak	7	20 min.	Helduak
<b>Txatxilipurdi</b>			
Txatxi podcasta	16	20 min.	Guztia
<b>Eup irratia</b>			
Anbelivalu	21	60 - 90 min. artean	Guztia
<b>Hala Bedi irratia</b>			
Joan zikutara	31	60 min.	Guztia
A Desalambrar	70	60 min.	Guztia
<b>Kkin Zona irratia</b>			
Pentsatu, ez sinistu	10	30 min.	Guztia
Gaur egur	200	15 min.	Guztia
Game Erauntsia	200	55 min.	Guztia
Matxura buruan eta ibili munduan	159	60 min.	Guztia
<b>Arraio irratia</b>			
Ahuntzaren gauerdiko eztula	117	20 min.	Guztia
Gure garaian	1	34 min.	Guztia
<b>Ulu media</b>			
Ispilu Beltza	208	120 min.	Guztia
Katedralak	2	35 min.	Guztia
<b>Klak gazteon irratia</b>			
Kabala	32	30 min.	Gazteak
<b>97 irratia</b>			
Lur eta murmur	90	30 min.	Guztia

artean dituzte momentu hauetan, 19 podcastek konkretuki. Gutxiengoa dira, aldiz, 100 atal baino gehiago dituzten elkarrizketa podcastak, soilik 9 baitaude.

Konkretuki 44 dira elkarrizketa podcast bezala sailkatu ditugunak (haien osotasunean elkarrizketa formatuan direlako). Beste podcast batzuetako zenbait ataletan ere jasotzen dira elkarrizketa batzuk, baina ez dira hauetara bakarrik mugatzen. Modu desberdinetako elkarrizketa podcastak aurki daitezke, nahiz eta entzuleak elkarrizketa dela azkar batean antzeman dezakeen, denak ez dira berdinak. Tonu formala ala informala, edukia, estiloa... Desberdina da denetan, batzuk solasaldi






forma hartzen dute: gai baten inguruan gonbidatuak gehiago hitz egiten duenean esatariak galderak egin baino. Bestalde, elkarrizketa formatu tradizionalagora jotzen dutenak daude: galdera-erantzunetan oinarritutako hartu-eman batera mugatutakoak. Gonbidatu bat baino gehiago izatean debate forma hartzen dutenak ere badaude... Eta beste hainbat adibide.

## 2.5. Podcastak gaika

Euskarazko podcastak hainbat gairi buruzkoak dira: zientzia, kultura, memoria historikoa, historia, teknologia/IKTak, ikus-entzunezkoak, erreportajeak, filosofia, aukeratuak, bertsolaritza, politika, ongizatea, gizartea, elikadura, bidaia-abentura, haurrak, audio liburuak, irrati nobelak, aisia-fikzioa, umorea, kirolak, musika, magazina, kontakizunak, aktualitatea eta ezagutza.

Ondoko grafikoan ageri den bezala, musikari buruzko podcastak dira zati handi bat:

### 3. Irudia: Podcast motak




Iturria: Lanketa propioa

Zehazki, euskarazko podcasten % 25 dira musikari buruzkoak. Gainerako podcast-en pisua nahiko orekatua da, % 5 eta % 7ren artekoa gehienetan.

## 2.6. Podcastak entzuteko plataforma digitalak

Euskarazko podcast guztiak ezin dira plataforma guztietan entzun. Ia denak (% 90) entzun daitezke Ivoox plataforman. Haatik, podcasten % 60 eta % 58 baizik ez dira Apple Podcast plataforman eta Spotify plataforman, hurrenez hurren.


### 4. Irudia: Plataforman daudenak eta ez daudenak



Iturria: Lanketa propioa

Hainbat podcast plataforma batean baino gehiagotan entzun daitezke. Zehazki, Apple, Ivoox eta Spotify saretan entzun daitezke podcasten % 51. Aldiz, podcasten % 31 Ivooxen baizik ezin dira entzun. Gainerakoak entzun litezke hiru horietako bitan, edo podcastarentzako webgunean soilik.

### 5. Irudia: Podcastak plataformetan



Iturria: Lanketa propioa



169

Podcastgintzara zuzendurik antena  
**Euskal hedabideen urtekaria 2022-23**

### 3. Ondorioak



170

Alde batetik, euskarazko podcast guztiak (191) entzun eta analizatu dira. Podcast ospetsu edo garrantzitsuenak hedabide ezagunenetan daude (EiTB, Naiz irratia, ZuZeu...), baina badira beste batzuk irrati alternatiboetan daudenak, eta hauek, hain ezagunak ez badira ere, ez dira gutxi. Arrosa Sarearen webgunean jasotzen dira azken hauetako gehienak eta bertan ez da nahitanahiezkoa hedabide konkretu baten parte izatea.

Teknologiak etengabe egin du aurrera azken urteetan, eta horrekin batera gero eta erabiltzaile gehiago batu dira sarera eta ondorioz, podcastetara. Gainera, pandemiaren ondorioz eragindako itxialdiak ere gorakada ekarri zuen podcasten entzule kopuruetan. Coelloren (2022) hitzetan, 2019an milioi bat podcast zeuden eskurgarri munduan; gaur egun, soilik Spotifyren katalogoan 3,2 milioi daude. Beraz, argi ikus daiteke podcasten arrakastaren arrazoi nagusienetarikoak teknologiak eta sareek izan duten aurrerapausoa eta COVID-19ak eragindako itxialdia izan direla.

Emakumeen presentziari erreparatuz, gero eta emakume gehiago batu dira fenomeno berri honetara esatari eta sortzaile gisa, gizonezkoen kopurua handiagoa bada ere. Emakume esatarien gorakadan zerikusi handia izan du hedabide tradizionaletan baino libreago sentitzen direla podcastetan; Carola Solék (2020) dioenez,

**<<oraindik badago bidea egiteko, hedabideak gizonen menpe egon direlako tradizioz, eta, agian, podcastean iraultza txiki bat gertatzen ari da: emakumeok gure ahotsa indar handiz entzunarazten ari gara, beste hedabide batzuetan baino askoz gehiago. Ez bakarrik kezkatzen gaituzten gaietara bideratutako podcastak egiteko, baita munduarekiko gure ikuspegia eta perspektiba baliarazteko ere>>.**

Euskal Herrian ere egoera berdina da, oraindik gizonezko gehiago dira esatari modura ibiltzen direnak, baina emakumeak ere beraien txokoa aurkitzen ari dira. Gainera, podcastek orokorrean aurrerakada izan duten bezala, Euskal Herrian ere haien arrakasta igotzen ari da eta gero eta eduki gehiago dago. Eduki hau aurki dezakegu hedabide tradizionaletan, Spotify bezalako plataformetan, eta baita podcast asko biltzen dituzten web orri desberdinetan ere. Esan beharra dago podcast batzuek beren web orri propioa dutela eta bertan euren atalak argitaratzen dituztela. Garrantzitsua da eremu digitalean euskarazko ikus-entzunezko edukien presentzia bermatzea, eta, era berean, premiazkoa litzateke Internet bidez kontsumitzeko filmetan eta telesailetan inbertitzea, baita horien kontsumoaren gaineko jarraipena egitea ere.

## 5. BIBLIOGRAFIA

**Coello, I.** (2022). Forbes. *La fiebre del podcast: un negocio en femenino.*

<https://forbes.es/forbes-w/140154/la-fiebre-del-podcast-un-negocio-en-femenino/>

**Gambín, M.** (2021eko abenduak 3). El Nacional.

[https://www.elnacional.cat/es/cultura/empoderamiento-femenino-podcast\\_677831\\_102.html](https://www.elnacional.cat/es/cultura/empoderamiento-femenino-podcast_677831_102.html)

**Hernandez, J., & Martin, R.** (2019ko urriak 23). Play radio: Solamente una vez.

*El fenómeno de los podcasts:* <https://www.rtve.es/play/audios/solamente-una-vez/solamente-vez-fenomeno-podcasts/5420519/>

**Mimenza, L.** (2020). *2020ko nazioarteko ekosistema mediatikoaren letra-zopa.* Euskal

Hedabideen Urtekaria, 21-38. <https://behategia.eus/wp-content/uploads/2021/07/urtekaria2020-web.pdf>

**Etxebeste, A.** (2021eko maiatzak 26). Berria. *Euskararen aldekoa izango da apustua.*

<https://www.berria.eus/paperekoa/1857/028/001/2021-05-26/euskararen-aldekoa-izango-da-apustua.htm>

**Abad, M.** (2022). Forbes. *La fiebre del podcast: un negocio en femenino.*

<https://forbes.es/forbes-w/140154/la-fiebre-del-podcast-un-negocio-en-femenino/>

**Sanchez, L.** (2021eko irailak 30). El independiente.

*El 'podcast' en España tiene voz, y alma, de mujer.* <https://www.elindependiente.com/tendencias/cultura/2021/09/30/el-podcast-en-espana-tiene-voz-y-alma-de-mujer/>

**Cadenas, I** (2020eko martxoak 6). El pais. *El poder femenino en el podcast en español.*

[https://elpais.com/elpais/2020/03/05/dias\\_de\\_vino\\_y\\_podcasts/1583444392\\_268680.html](https://elpais.com/elpais/2020/03/05/dias_de_vino_y_podcasts/1583444392_268680.html)



171